

DATU PERTSONALAK BABESTEKO DEKALOGOIA

1. KONFIDENTZIALTASUNA ZAINDU BEHARRA: Eginbeharren barruan eskuratutako edozein informazio erreserba osoz eta isilpean gordeko dugu etengabe, batik bat datu pertsonalak tartean direnean.

2. INTERESATUAREN ESKUBIDEAK: Datu pertsonalen titularrak horiek ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea dauka. Eskubide horiek honako leku honetan egikaritu behar dira: (zehaztu beharreko lekua).

3. SEGURTASUN DOKUMENTUA: Datu pertsonalen segurtasunari buruz Erakundeak duen araudia bete beharreko dokumentuan jasota dago.

4. DATU PERTSONALAK IKUSTEA: Informazio sistemen erabiltzaileok gure sarbide pasahitzaren konfidentzialtasunaren erantzukizuna dugu, eta sistemara sartzeko baino ez dugu erabiliko. Datu pertsonalak dituzten fitxategi fisikoak (ez automatizatuak) giltzapean dauden armailuetan gorde beharko dira, eta baimendutako langile bat egon ezean, itxita geratuko dira.

5. DATU PERTSONALEN KONFIDENTZIALTASUNA: Datu pertsonalak baimenduta ez daudenei ez erakusteko ardura dugu. Ordenadorearen pantailak behar den eran orientatuko dira eta pasahitza duen babesgarria aktibatuta edukiko dute. Lanpostua (mahaiak, fotokopiagailuak, inprimagailuak, faxak, etab.) uzterakoan, datu pertsonalei buruzko informaziorik agerian utziko ez dugula egiaztatuko dugu.

6. DATU PERTSONALAK DITUZTEN FITXATEGI BERRIAK: Datuak Babesteko Agentziari jakinarazten zaionean soilik datu pertsonalak dituen inongo fitxategia sortu, aldatu edo ezabatu daiteke, Segurtasun Dokumentuan jasota daudenak ez direnean. Fitxategi guztiak ezagutu behar ditu Segurtasun Arduradunak edo saileko zein zerbitzuko arduradunak.

7. DATU PERTSONALAK JASOTZEA: Datu pertsonalak eskatzen zaizkien pertsonen fitxategiaren berri emango zaie, hala nola bere xedea eta abar, horretarako idatzi eta banatuko diren ohar legalen bitartez. Datu pertsonalak egokiak, bidezkoak eta ez gehiegizkoak, jaso behar diren helburuari begira.

8. XEDEA: Ez ditugu datu pertsonalak erabiliko jaso zirenean zeuden helburuekin bateraezinek direnean.

9. DATU PERTSONALAK EZABATZEA: Datu pertsonalak ezabatuko dira jaso ziren helburua lortzeko beharrezkoak edo bidezkoak izateari uzten diotenean. Datu pertsonalak dituzten fitxategiak suntsitzeko zerbitzu edo sail bakoitzean beren beregi kokatutako paper-birringailuak erabili beharko dira.

10. ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA DATU PERTSONALAK: ARTEZ EUSKARA ZERBITZUAREKIN dauzkaten hitzarmenei esker, datu pertsonalak ikusi edo jaso ditzaketen erakundeek edo enpresek horretarako dagoen konfidentzialtasun klausula sinatu eta emandako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatuko dute. Datu pertsonalei buruzko edozein zalantza argitzeko edo iruzkinik egiteko, **Segurtasun Arduradunarengana** joko dugu.